



## **Lehiaren Euskal Agintaritzak, euren jarduketak ez dezala lehia mugatu eskatu die Bilboko Portuko zamaketarien sindikatuei**

Abuztuaren 8tik 28ra bitartean grebarako aurreabisuaren aurrean, LEA/AVCk zamaketarien jarduketak ez dezala lehiaren arautegia urratu eskatu du

**BILBON, 2020ko uztailaren 30ean / Lehiaren Euskal Agintaritzak (LEA/AVC) Bilboko Portuko zamaketarien lau sindikaturekin harremanetan jarri da, haien jarduketa "langileen lan-eskubideen defentsaren barruan sar dadila" eskatzeko, "lehia eragotzi, murriztu edo faltsutu dezaketen gaitan eraginik izan gabe".**

LEA/AVCk, zenbait sindikatuk legezko grebaren aurreabisua aurkeztu dutela jakin duelako egin du eskaera. Greba horrek Bilboko Portu Autonomoan merkantziak manipulatzeko dituzten edo/eta merkataritza-zerbitzuak egiten dituzten zamalanetako enpresa guztiei eragingo die, eta baita Sociedad de Estiba y Desestiba del Puerto de Bilbao, CPE (Bilboestiba) sozietateari ere, abuztuaren 8tik 28ra bitartean.

Langileen lan-baldintzak defendatzeko sindikatuen eginkizuna erabat errespetatuz, eta grebaren deialdirako aurkeztu diren arrazoiak baloratzen hasi gabe, LEA/AVCk uste du, estatuko eta EBko auzitegien doktrinaren arabera, enpresen eta langileen ordezkarien arteko hitzarmen kolektiboak ez direla era automatikoan geratzen ezarpen askatasunari eta zerbitzuak modu librean emateari buruzko lehiaren arauak eta EBko Funtzionamendu Tratatuak aplikatzetik kanpo.

Era berean, jakinarazten du, Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 3ko 15/2007 Legearen 1.1 artikulua debekatu egiten duela taldeko akordio, erabaki edo gomendio oro, edo hitzartutako praktika edo nahita paraleloa den jarduera oro, horien helburua ondorengoa bada edo izan badaiteke: merkatu nazional osoan edo zati batean lehia eragotzi, murriztu edo faltsutzea.

Gainera, 2016an, LEA/AVCk boikot gisa hartu zuen, eta, ondorioz, LDLren 1.1 artikulua hausteagatik zigortu zuen, Bilboko Portuko garraiolari autonomoen elkarte batek ontzi-enpresa jakin bati zerbitzurik ez emateko egindako greba-deialdia. Auzitegi Gorenak zigor hori berretsi zuen.

### **Lehiaren Euskal Agintaritzari buruz**

Lehiaren Euskal Agintaritzak, administrazio izaera duen erakunde autonomoa da, Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza Sailari atxikia, eta autonomia organikoa eta funtzionala du



bere eginkizunak betetzeko Euskal Autonomia Erkidegoan. Bere helburu orokorra merkatuko lehia askearen eta gardentasunaren baldintzak sustatzea, bermatzea eta hobetzea da, Euskal Autonomia Erkidegoan egiten diren jarduketara ekonomikoei dagokienez.